

BEZEROEKIKO HARREMANA:

Gure proiektuari beste bultzada mota bat emateko eta bezeroak erakartzerko publizitatea egingo genuke. Alde batetik, hezkuntzarantz bideratuta dagoen publizitate mota bat ezarriko genuke adibidez, institutuetan hitzaldiak emanez (3. eta 4. mailakoentzat, adin horretan zein bide jarraitu nahi duten galdetzen zaielako eta batxilergo osoarentzako unibertsitatean zein goi mailako graduatan zer bide jarraitu ahal duten jakiteko) eta kartelak kaleetan itsasten. Lanbide heziketarantz bideratutako publizitatean, kartelak entitate publikoen iragarki-tauletan (LANBIDE adibidez) itsatsiko genituzke eta gizarte-etxeetan hilabetean behin hitzaldiak egingo genituzke helduentzako bideratuta.

Laguntza pertsonala eskainiko dugu nahi duenarentzat, gure posta elektronikoa jarritz, kontsulta hau dohainik izango da.

App bat denez, autozerbitzua bai ala bai egongo da, bezeroak app-aren barruan eskainitako guztia erabili ahal izango dutelako inolako baimena eskatu gabe.

Zerbitzu automatizatu bat izango da, aplikazio bat delako eta garraio bide hobereana iruditzen zaigulako pertsona guztietara iristeko, nahiz eta laguntza pertsonala eduki.

Gure app-ean ez dira egongo harpidetzarik edo gune premiumik, hori esan nahi du eskaintzen dugun guztia aplikazioa duten pertsona guztiak erabili ahal izango dutela.